

“Munduko Arrozak 09 Arroces del Mundo”

Mundua gure herrian



Lehen aldiz Durangon, datorren ekainaren 20an, **Munduko Arrozak** ekimena antolatuko da. Jai giroan egingo da, partehartzea bultzatuz eta kaleak eta auzoak berreskuratzeko eta okupatzeko aldarrikatuz, bertakoen eta kanpotik etorritako herritarren arteko bizikidetzak bultzatzeko. Munduko Arrozak ekimena, normaltasunezko harremana eta parte hartze soziala sustatzeko sortu den jarduerak da.

Arroza, kultura guztietako plater komuna izanik, eta prestatzeko aldaera anitz dituen, gure herriko unibertsaltasunaren eta aniztasunaren sinbolo eta pertsona eta kultura desberdinen arteko harremana erakusteko modu egokia dela uste dugulako aukeratu dugu. Aitzakia horrekin, auzoetan bizi diren kultura anitzen adierazpenak kalera aterako ditugu jai giroan: lehen aipaturiko dastaketa gastronomikoak, dantza eta musikarekin, kulturen arteko bizikidetzak eta elkartasuna sustatuz.

Durangon egiten den lehen edizioa izango da, baina ez da hala izango Bilboko San Frantzisko auzoan, Donostian, Iruñean eta Gasteizen. Izan ere, festa hau leku guzti hauetan egin izan da egun berean, eta kartel eta helburu berdinekin. Kezka, arazo eta mugimendu antzerakoak dituzten tokietan, alegia.

Jardueraren helburuak

1. **Gure kaleak aldarrikatu, okupatu, berreskuratu.** Gure auzoetan egunero bizi ditugun arazoaren aurrean, kaleak denon gozameneko direla aldarrikatzen dugu, herri kultura bultzatuko duten proposamen irudimentsuak -ez itxurazkoak- abiapuntu bezala hartuta, eta bizikidetzan eta aniztasunean oinarrituta.
2. **Gu barik ez dago auzorik.** Instituzioek bide ematen ez badigute ere, parte hartu nahi dugu. Auzoak gureak dira, beti bertan bizi izan garenok, historian zehar auzoak hobetzearen alde borrokatu garenok, hemen jaio garenok eta heldu berriok. Guztiok, andre zein gizon, parte hartu nahi dugu berrikuntzan, heziketan, hiriko eta gizarte bizitzan... Hori baita gure bizitza eta bizi dugun barrutia.
3. **Kultura aniztasuna eta mestizajea jai bihurtu.** Gure auzoetan bizi dugun kultura aniztasuna, aukera bezala ikustea proposatzen dugu. Elkarren arteko bizikidetzaren aldeko apustua egiten dugu. Baina hau ere, jai giroan egiten dugu, badakigulako, aldarrikapenak eta buruhausteak ahaztu gabe, jaiak batu egiten gaituela eta eguneroko gure ohiko harremanetako esparrua zein den erakusten digulako. Areago, jai honek, gure kulturen arteko ezberdintasunak proiektu bateratu batera garamatza; hau da, auzo gizakioagoak, bizitzeko egokiagoak, solidarioagoak eta borrokalariak izatera bultzatzen gaitu.
4. **Senidetutako auzoak.** Gure auzoak eta gure kezkek lotuta doaz. Badira errealitate eta buruhauste berdintsuei aurre egitera behartuak dauden zenbait auzo eta “gune historiko”. Hori dela eta, Bilboko San Frantzisko, Gasteiz, Iruña eta Donostiako Alde Zaharrak, eta Durango bat eginda eta senidetuta ibiliko gara egun horretan. Agian, horrela gure aldarrikapenak ozenagoak izango dira, jaiak eta gozamena handiagoak, eta elkarrekin borrokatzea lortu dugu.

“Munduko Arrozak 09 Arroces del Mundo”

Gonbidapena

Elkarte eta zenbait herritarrek osatuta, **Zubiguneak** eratu duen tailerretik **“Munduko Arrozak - Arroces del Mundo”** ekimenean parte hartzeko gonbitea egiten dizuegu. Arrozaren bidez, beste herri batzuk ezagutuko ditugu, kulturen arteko eta jai giroko gastronomia topaketan. Ekitaldia, **ekainaren 20an, larunbata, burutuko da Durangoko Ezkurdi plazan.**

Antolatzaileen esku geratzen da herri bazkarirako mahaiak eta aulkiak jartzea. Gutxi gorabehera zenbatek parte hartuko duten aurretik jakin nahiko genuke; baita sukaldaritzan lehiatu nahi duten taldeen kopurua ere. Horretarako, eman zuen izena ahalik eta azkarren honako helbidean **durangokosmopolita@gmail.com**, edo telefono hauetara deituta: **946200449** (goizeko 8.30etik 14.30era) edo **686901670** (17.00etatik 20.00etara). Maite edo Julianekin harremanetan jarri.

Izena emateko azken eguna **2009ko ekainaren 12a izango da.**

Giroa berotzeko egokiena partehartzaileak diren arren (bai bakarlari, bai talde), fanfare, perkusio talde eta beste hainbesteren kolaborazioa ere eskatzen dugu. Horregatik, dei egiten diegu gizarte talde, artista zein talde kulturaleri zuen ekarpenak egin ditzazuen tailerrak jarriz edota saioak eginez... Beraz, egitarauan ekintzaren bat sartu nahi baduzue, ondoko helbidera idatzi: **durangokosmopolita@gmail.com**

ANIMA ZAITEZ !!